



PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Erljio Katolikoa

lehen Hezkuntzako laugarren maila

Egileak

Jesus Lacuey

Juan Manuel Rodríguez

Gainbegiratzaile teknikoa

Carlos Romera

IBAIZABAL



Aurkibidea

● Aurkezpen gutuna eta proiektuaren gakoak.....	4
● Erljio arloko metodologia.....	5
● Elkarlaneko ikasketa.....	6
● Proiektuko materialak.....	8
● Ikasgelako programazioak.....	12
● Baliabide didaktikoak.....	37
● Eranskinak: kontakizunak, abestiak, aisiarako baliabideak eta material osagarria.....	96

Aurkezpen gutuna eta Dinorah proiektuaren gakoak

Liburu hau Edelvives argitaletxearen Dinorah proiektuaren Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloari dagokio, Kristautasunaren mezua argi, erraz eta hurbiltasunez helarazi nahi die hezkuntza-aldi horretako haurrei. Horretarako, metodologia zehatz bat hartzen du ardatz, hasiera-hasieratik ondo finkatuta:

- a) *Haurraren esperientziatik abiatzen gara beti.* Gure ustez, ideia hori garrantzitsua da, gizakiaren bizitzarekin zerikusirik ez duen eta aurretik egina dagoen erlijioari buruzko ikuspegia errotu ez dadin.
- b) Bigarrenik, giza esperientzia horren argia erakusten dugu, Jainkoaren maitasuna eta esperientzia abiaburu izanda. Une honetan, Biblian, Elizaren tradizioan eta gaur egungo doktrinan oinarritutako erlijioaren kontzeptuak ezagutaraziko dizkiegu haurrei.
- c) *Jainkoak argituta eta Espirituaren indarrak lagunduta, kristauak bizitzara itzuli eta bertan errotzen dira.* Baina bizitza hori aldatu egiten da, Berpiztutako Espirituaz beterik baitago. Erlijio irakasle gisa dugun esperientzia aintzat hartuz, puntu horrek garrantzi handia duela uste dugu. Jesusen jarraitzaileek pentsatu egiten dute, balioak dituzte, Jesus bezala bizitzeko ahalegina egiten dute... Hortik datorkie, hain zuen, kristau izena.

Elementu garrantzitsuenak

- Lagunarteko hizkuntza, zuzena, hizkuntza ulertzeko gaitasuna areagotzen doan heinean zorrozten joango dena.
- Abiapuntua gertukoa eta zehatza da, hau da, haurraren esperientzian, irudietan, ipuinetan, abestietan eta abarretan oinarritzen dena.
- Jarduera errazak: marrazkiak, horma-irudiak, esaldi-osaera... unitatearen oinarritzko edukiak sakontzeko eta barneratzeko.
- Narrazio hizkuntzak leku berezia izango du: ipuinak, kontakizunak, testu tradizionalak, etab. Ikasleek urteko garai bakoitzean duten mailara egokituko dira.
- Bibliako testu egokituak. Horretarako, Ibaizabalek Bibliako testuei buruz dituen argitalpenak erabiliko dira.
- Mezu kristauaren muinera hurbilduko gara pixkanaka. Arian-arian, haurraren adinari dagozkion ezagutza mailan eta jarreretan txertatzen joango da.
- Unitate didaktikoen edukiak finkatzen lagungarri izango diren hitzekin eginiko abestiak kantatuko dira, eta erlijio musika entzungo da proposamena girotzeko.
- Artearen historiako irudiak aurkeztuko dira eta erlijioari buruzko herri tradizioen berri emango da. Hartara, erlijioaren kultura edukia osatuko da.
- Unitate bakoitzaren xedeen aurkezpena arretaz zainduko da, unitatearen atal bakoitzaren amaieran sintesi laburrak eginez.
- Gure ustez, seme-alaben erlijio heziketan garrantzi handia du gurasoen parte-hartzeak. Beraz, proposamen didaktikoan irakasleei jarduerak banatuko zaizkie ikasleek, nahi izanez gero, etxean egin ditzaten.

Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetakoko haurrentzako Erlijio Katolikolari buruzko liburua prestatzeko garaian, hainbat ezaugarri berezi hartu ditugu kontuan, hala nola gure ikasleen une psikologikoa edo azaldu beharreko kristautasunaren mezua, Gotzainen Konferentziak eskaintako curriculumean barne hartutakoak.

Gure neska-mutikoei aurkikuntza eta miresmenez jositako aldia bizi dute. Esperientzia pertsonal aberatseko unea da, eta, horren barnean, gauzei buruzko ikuspegi objektiboa, arduraren zentzu handiagoa eta gainerakoekiko harreman sakonagoa garatzen dute aldi horretan. Ezaugarri horiek guztiak aintzat izan ditugu liburu hau idaztean eta ikasleei fede kristaua aurkeztean.

Gure iritziak, fede kristauaren funtsezko edukia modu metodiko eta sistematikoagoan irakasten hasteko une egokia da. Baina, era beran, jakin badakigu kristautasunaren mezua ez dela definizioen eta formula abstraktuen bidez aurkeztu behar; aitzitik, kristautasunaren fedearen funtsezko egiei buruzko ikuspegi orokorra eman behar da. Erlijioaren Eskolako Irakaskuntza (EEI) ez da haurrak buruan gorde dezakeen ezagutzakopuruaren arabera neurtzen, baizik eta eurengan ernamuntzen diren sentimenduen kalitatearen eta jarreraren arabera.

Gure ikasle askok eskoletan Berri Onaz jabetuta, honako bide hauek garatuko dituzte:

- Jainkoarenganako seme-alaben maitasuna (bizimodu kristaua Jainkoak eskatzen digunari jarraitzean datza).
- Jesukristori jarraipena (Jainko eta Gizaki izanik).
- Izpirituarenganako otzantasuna (ez modu arrazionalen, baizik eta kristauen jardueren eta testigantza bidez)

Bi giltzarri horiek kontuan izanik, Kristautasunaren moralak norberak Jainkoarekin duen harreman pertsonalaren ondorioa dela adieraziko zaie. Eskolako testuinguruan, mundua zabalagoa gertatuko zaie, eta mundu horretan Jainkoak duen presentzia aurkitu ahal izango dute.

Ikasketa edo jakintza hitz hutsetan oinarritzeko tentazioa da saihestu nahi izan dugun arrisku bat. Horrexegatik, bada, buruz ikasteko prozedurak eta formula abstraktuak alde batera utzi ditugu. Hala, erlijiozko zentzua duten jarduerak hautatu ditugu, horien gainean gogoeta egiteko eta edukiek gure ikasleen buruan nahiz bihotzean lekua hartzeko.

Honako jarduerak hauek hautatu ditugu, beraz, haurrek Kristautasunaren mezua modu aktiboan barneratzeko egokienak direlakoan: ipuina –adin horretako neska-mutiko talde baten gorabeherak– marrazkia, komikia, abestia, horma-irudiak, antzerki-adierazpena, esaldi osagabeak, rapa, testu-sorkuntza, etab.

Irakaslearen liburu hau, hain zuzen, *ikaslearen liburua* aberasteko osagarri bikaina delakoan gara. Aberatsa, anitza, eta proposamen originalen beteta egotea nahi izan dugu; alegia, eskolak emateko irakaslearentzako funtsezko laguntza.

Elkarlaneko ikasketa

Joera pedagogikoak eta unitate didaktikoen jarduerak xeheago zehazteari ekin aurretik, taldean ikasteko ideia nagusien laburpena egingo dugu, maiz aipatzen dugun ikasketa-estrategia baita hori. Hezkuntza proposamen gisa interesgarria dela deritzogu, Erljio arloan bete-bete txertatzen delako; izan ere, ikasgai horretan edukiak ez ezik, harremanak, lankidetzak, eta azken finean, kristau komunitatea eraikitzeke ezinbestekoak diren jarrerak ere erakusten dira.

Jarraian proposatzen diren hamar ideiak pixkanaka-pixkanaka ezarriko dira, jakin badakigulako Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloko haur harbera eta kolaboratzaileek estrategia pedagogiko horren oinarritzko jarraibideak erraz barneratuko dituztela.

1. Elkarlaneko ikasketa ekintza pedagogikoaren ereduak da, eta kontrajarrita dago norbanakoaren ikasketarekin eta ikasketa lehiakorarekin.
2. Elkarlaneko ikasketaren bidez, ikasle bakoitzak taldean lana egiteko trebetasunak eta ezagutzak eskuratzea lortu nahi da, hau da: ikasleak taldean ikasten ikasi behar du.
3. Elkarlaneko ikasketa taldean egiten da, ikasgelan talde edo bikoteen arteko elkarrreragina bilatuz. Jarduera gehienak talde heterogeneoetan egiten dira, hau da: askotariko gaitasunak dituzten lau bat kidek osaturiko taldeak (sexua, adimen maila, kultura jatorria, izaera,...).
4. Elkarlaneko ikasketan norbera da bere lanaren erantzulea eta baita taldekide bakoitzak egiten duen lanarena ere. Taldeak ez baditu lan jakin bateko helburuak bete, norberak ere ez ditu bete.
5. Elkarlaneko ikaskuntza ikasgelan antolatzeko proposamen nagusiak honako hauek dira: ikasleak talde heterogeneoak osatuz elkartzea. Ikasleen arteko mendekotasuna edo ikasleen arteko harreman positiboa lantzea (besteari lagundu behar zaio beti eta besteari guri laguntzen utzi behar diogu), ezetz esaten diegu ekintza indibidualistei, negatiboei



edo lehiakorrei. Elkarren arteko mendekotasuna edo bata bestearekin lanean aritzeko premia piztea. Norberaren erantzukizuna, edo norberak taldeko lanekiko duen konpromisoa bultzatzea. Gizarte trebetasunak etengabe garatzea. Ikasle bakoitzaren aukera berdintasuna ziurtatzea, talde lanak iraun bitartean. Amaitzeko, taldekideek eta irakasleak aldiro berrikusi eta ebaluatu beharko dute taldeak eta norberak eginiko lana.

6. Elkarlaneko ikaskuntzan irakasleak ikaslearen eta ezagutzaren arteko bitartekari lana egiten du. Ikaskuntzaren erdigunea baino gehiago, ezagutzak eskuratzeko lanak behatu, bideratu, sustatu eta koordinatu egiten ditu irakasleak.
7. Elkarlaneko ikaskuntzaren bidez, ezagutzaren gizartea eraikitzea lortu nahi da. Irakaslea bitartekaria da, ikaslea ikasten duenaren protagonista da, eta lankidetzaren taldeak ikasteko giroa sortzen du.
8. Elkarlaneko ikaskuntzaren bidez, bizikidetzarako gizarte trebetasunak, ikasten ikasteko estrategiak eta arlo bakoitzaren eduki jakinak ikasten dira.
9. Elkarlaneko ikaskuntzaren bidez, lankidetzaren aritza zer den ikasten da, gauza esanguratsuak, eta aldi berean, guztientzako zentzuzkoak diren gauzak eginez. Lana amaitzean, taldeak eta norberak eginiko lanaren alde positiboak eta negatiboak aztertuko dira. Elkarlaneko ikaskuntzan ikasle bakoitza eta talde osoa ebaluatzen da.
10. Laburtuz, elkarlaneko ikaskuntzaren asmoak honako hauek dira: gehiago eta hobeto ikastea, arazoak taldean bideratzea, eta ikasle bakoitzak ikasten ikasteko oinarriko gaitasuna eskuratzeko, hau da, ikaskuntzaren autonomia lortzea. (Uriz Bidegain, Nicolas. Navarra. 1999).

«Norbaitek jatekorik eskatzen badizu, ez arrainik eman, kanabera utzi eta arrantzan egiten erakutsiezaiozu.»

Nola osatu elkarlaneko ikasketarako taldeak?

Elkarlan bidezko ikasketan jarduteko, **lau kideko talde heterogeneoak** osatu behar dira. Esperientziak dioskunez, lau kideko taldeak dira eraginkorrenak; izan ere, kide bat jardueratik kanpo utzi gabe talde-lan ona egiteko kide kopuru egokia da hori; taldea, gainera, bi bikotetan bana daiteke, edo euren artean hainbat konbinazio egin, jarduerak hala eskatzen dutenean. Elkarlaneko talde-lanak hainbat maila izan ditzake: ikasgela osoarekin egiteko elkarlaneko lana, talde heterogeneoekin egin beharreko elkarlaneko lana eta bikoteka egin beharreko lana. Taldearen beharrianak zein diren, ikasturtea nola doan, zenbat materia ikusi den... faktore horien arabera elkarlanean jarduteko modua aldatu egiten da: ikasgelan, taldean edo bikoteka.

Lau kideko talde heterogeneoa osatzeko, ahal dela, irizpide hauei jarraituko zaie: 1. Sexuaren arabera: neskak eta mutilak konbinatuz. 2. Jatorrizko kulturaren arabera: kultura diferentetako edo gizarte desberdinetako ikasleak bateratuz. 3. Gizarteratzeko mailaren arabera: gizarte-baliabide onak dituen ikaslea horren nabarmenak ez diren bi kideekin eta halako trebeziarik ez duen beste batekin bateratuz. 4. Maila intelektuala-aren arabera: eskolan emaitza onak lortzen dituen ikasle bat, emaitza normalak lortzen dituzten birekin eta emaitza txarrak dituen beste batekin bateratuz.

Talde heterogeneoak eratzeke, irizpide horiei jarraituko zaie, ikasturtean lortu nahi ditugun helburuak eta jarduerak aintzat hartuta.

Proiektuko materialak


Ikaslearentzat

Ikaslearen liburua



1. Orri motibatzailerak

Helburua zera da, marrazki eta kontakizun batetik abiatuta, ikasleak, bere esperientzia oinarri harturik, unitateko edukiak beregana ditzan. Atal honek gaiak jorratzen hasteko zenbait galdera ditu lagungarri.





2. Begiratu eta hausnartu atala

Orrialde bikoitza da; bertan, aurkezpen labur batetik eta zenbait jardueretatik abiatuta, ikasleek unitate bakoitzeko gaiari dagokionez zer esperientzia bizi izan dituzten aztertzen da.

3. Ikasi atala

Honako hau ere orrialde bikoitza da, eta, bertan, Bibliako kontakizun bat oinarritzat hartuz, unitate bakoitzaren kontzeptu-edukiak jorratzen dira. Zenbait jarduera eskaintzen dira eduki horietan gehiago sakontzeko.



4. Ezagutzak osatu atala

Orrialde bikoitza da, eta, bertan, ikasitakoak berrikusteko eta sakontzeko hainbat jardura daude. Batzuetan, taldean egiteko tailerrak edo jarduerak eskaintzen dira.

5. Beste zenbait erlijio

Hiru hilean behineko atala da, eta hiru erlijio monoteista handien tenpluen berri ematen da bertan. Jakintza bizkortzea eta erlijio-aniztasunarekiko errespetua bultzatzea du helburu.

Erlijioak munduan

Kristautasuna, Islam eta judaismoak (Ezkerretatik eskuera) munduko erlijioak dira. Erlijioak munduan zehar banatuta daude. Erlijioak munduan zehar banatuta daude.

Erlijioa	Liburu sagraduak
Judaismoa	Torako Liburua Ezkerretatik eskuera: Pentateuko Liburua, Gertakarien Liburua, Zetaren Liburua, Aitzakaren Liburua, Gertakarien Liburua
Islam	Koranoa Aldakortuak Ezkerretatik eskuera: Koranoa, Koranoa
Kristautasuna	Biblia Ezkerretatik eskuera: Antzinarikoa, Berrikoa

Erlijio monoteistak munduko erlijioak dira. Erlijioak munduan zehar banatuta daude. Erlijioak munduan zehar banatuta daude.

Hiztegia

Erlijioak munduan zehar banatuta daude. Erlijioak munduan zehar banatuta daude. Erlijioak munduan zehar banatuta daude.

7. Pitxu da Jesus!

Erlijioak munduan zehar banatuta daude. Erlijioak munduan zehar banatuta daude. Erlijioak munduan zehar banatuta daude.

7. Pitxu da Jesus!

Erlijioak munduan zehar banatuta daude. Erlijioak munduan zehar banatuta daude. Erlijioak munduan zehar banatuta daude.

6. Hiztegia

Hiru hilean behineko atal honetan, unitateak egin ahala agertutako oinarrizko hiztegiaren berri ematen da.

7. Berrikusi

Hiru hilean behineko atala da hau ere, eta, orrialde bikoitzean, hiruhilekoan landutako edukiak errepatatzen dira.

Gogoratu

Erlijioak munduan zehar banatuta daude. Erlijioak munduan zehar banatuta daude. Erlijioak munduan zehar banatuta daude.

Gogoratu

Erlijioak munduan zehar banatuta daude. Erlijioak munduan zehar banatuta daude. Erlijioak munduan zehar banatuta daude.

Irakaslearentzat

Proposamen didaktikoa



Proposamen didaktiko honetan, irakasleak unitateak lantzeko behar duen material osagarri guztia topatuko du. Barruan honako hauek aurkituko ditu:

1. Ikasgelako programazioak eta ikaslearen liburuko unitateen edukiak.

Lehen baskuntzako bigarren mailako programazioak

1. Unitateak: Jainkoaren nahia eta denek irakatsiko dituztenak

2. Argazkia: 3 eta 4. orriak

Helburuak	Materiala erabiltzeko
Erakundearen helburuak ezarri. Erakundearen helburuak ezarri. Erakundearen helburuak ezarri. Erakundearen helburuak ezarri.	Lehen baskuntzako bigarren mailako programazioak. Erakundearen helburuak ezarri. Erakundearen helburuak ezarri. Erakundearen helburuak ezarri.

Erakundearen helburuak

- Erakundearen helburuak ezarri.
- Erakundearen helburuak ezarri.
- Erakundearen helburuak ezarri.
- Erakundearen helburuak ezarri.

Materiala erabiltzeko

- Lehen baskuntzako bigarren mailako programazioak.
- Erakundearen helburuak ezarri.
- Erakundearen helburuak ezarri.
- Erakundearen helburuak ezarri.


2. Baliabide didaktikoak

Atal honetan ikaslearen liburuko orrialdeak osorik ageri zaizkigu, ikuspegi didaktikotik lantzeko honako proposamen hauek eginuz:

- iradokizun metodologikoak
- jarduera osagarriak (errefortzukoak, zabaltzekoak eta elkarlanekoak).
- orrialde bakoitzean proposatutako jardueren ebazpenak.

3. Eranskinak

CDan dauden kontakizun eta abesti guztietako testuen transkripzioa. Antzezlan eta baliabide ludiko batzuk ere sartu dira, ikasturteko edozein unetan erabiltzeko.



Materialak eta baliabideak dituen CDa

Proposamen didaktikoarekin batera doan CDak honako eduki hauek ditu:

- Ikaslearen liburuko unitate bakoitzean han hemen ageri diren abestiak.
- Musika klasikoko konposizio jakin batzuk, ikaslea kultura-adierazpen horretara hurbil dadin.
- Ikaslearen liburuko unitate bakoitzaren hasieran ageri diren kontakizunen kontaketa biziak.
- Ikasgelarako aisialdi-baliabideen taula fotokopiagarria eta joko-arauak.
- Edelvives argitaletxeak prestatutako sakramentuei buruzko posterra eta azalpen didaktikoa.

